



ZALDIBIAKO  
UDALA

# 2024 URTEKO ORDENANTZA FISKALAK



ZALDIBIAKO  
UDALA

## ZERRENDA

1. JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA
2. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.
3. TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.
4. ERAIKUNTZA, INSTALAPEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA
5. HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
6. JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIVATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK
7. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA EKINTZA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA
8. MUSIKA ESKOLA ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOA



## 1.ORDENANTZA

### JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

#### I. XEDAPEN OROKORRAK

##### 1 artikulua.-

Udal honek Ordenantza Fiskal honetan jasotako koefiziente eta indizeak finkatu ditu hurrengo xedapen hauetan aurreikusitako ahalmenez baliatuta: uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauko 10. eta 11. artikulua (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko foru-araua da) eta apirilaren 5eko 7/1991 Foru Arauan adierazitako azken xedapena (Premiazko Erabaki Fiskalak hartzeko foru-araua da).

#### II. KUOTA MINIMOEN PONDERAZIOA

##### 2. artikulua.-

Zerga honen tarifetan foru-aldundiak finkatutako kuota minimoek, udalerrri honetan zergapetutako jardueretan, 1. ERANSKINEKO aplikazio tauletan adierazten den ponderazio-koefizientearen gehikuntza izango dute.

##### 3. artikulua.-

Ordenantza honetako 2. artikuluan ezarritako gehikuntza-koefizientea ez zaie aplikatuko ez kuota probintzialei eta estatukoei, ezta foru-errekarguari ere.

#### III. ZERGA-KUOTA

##### 4. artikulua.-

Zerga-tasak finkatutako gutxieneko kuota izango da zerga honetako zerga-kuota, betiere, dagokion koefizientearen gehituta duela. Ordenantza honetako 2. artikulua eta, hala badagokio, foru-erregistroak finkatuko dute gehikuntza-koefiziente hori.

#### IV. KUDEAKETA-ARAUAK

##### 5. artikulua.

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utz daitezke zerga honi dagozkion kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapeneko ahalmenak. Eskuordetze horren xedapenak, edukia eta norainokotasuna udalbatzak zehaztuko ditu, aldundiarekin hitzarmena eginda, hura indarrean jarri aurreko urtea hasi baino lehen.

2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira erabaki eta hitzarmen horiek, haiek formalizatu ondorengo lehen sei hilekoan. Halaber, aldizkari ofizial horretan argitaratuko da adierazitako hitzarmenen salaketa.



ZALDIBIAKO  
UDALA

3.- Artikulu honetako lehen puntuan adierazitakoa betetzekoa izanda, foru-aldundiaren esku izango dira puntu horretan azaldutako eskumenak, kuota probintzialen eta estatuko esparruan.

#### **6- artikulua.-**

Ez da berandutza-interesik eskatuko, baldin eta subjektu pasiboak borondatezko epean eskatu ondoren, ordainketa geroratua edo zatikatua izatea onartu bada. Onura hori eskuratzeko, sortu den ekitaldian ordaindu beharko da zerga.

#### **V. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera onartu izan zena, 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du harik eta aldaketarik egin edo derogatzen ez den arte.

#### **ERANSKINA**

Finkatutako kuota minimoen gehikuntzako koefiziente bakarra:  
%1,84 koefizientea

Udalerriko bide publikoen sailkapena: Kategoria bakarra 1



## 2 .ORDENANTZA

### ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

#### I. XEDAPEN OROKORRAK

##### 1.- artikulua.

Udal honek, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 14.3. artikulua bidez ematen dion baimena erabilita, zerga honen zerga-tasa ezartzen du, hurrengo artikuluan adierazitako moduan.

#### II. ZERGA-TASAK

##### 2. artikulua.

1.- Hiri-ondasunei ERANSKINEAN adierazitako zerga-tasa aplikatuko zaie Ondasun Higiezin gaineko Zergan.

2.- Landa-ondasunei ERANSKINEAN adierazitako zerga-tasa aplikatuko zaie Ondasun Higiezin gaineko Zergan.

#### III. ZERGA-OINARRIA ETA KUOTAK

##### 3. artikulua.

1.- Katastro-balioa izango da hiri-ondasunek Ondasun Higiezin gaineko Zergan izango duten zerga-oinarria.

2.- Arauz onartutako katastro-balioa izango da landa-ondasunek Ondasun Higiezin gaineko Zergan izango duten zerga-oinarria.

3.- Aurreko ataletan adierazitako zerga-oinarriei dagokien zerga-tasa aplikatuta zehazten da zerga-kuota. Ordenantza honetako 2. artikulua ezartzen ditu zerga-tasak.

#### IV. KUDEAKETA-ARAUAK

##### 4. artikulua.

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utz daitezke zerga honi dagozkion kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapeneko ahalmenak. Eskuordetze horren xedapenak, edukia eta norainokotasuna udalbatzak zehaztuko ditu, eta hitzarmena egingo da aldundiarekin.

2.- Udalbatzaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3.- Ez da berandutza-interesik eskatuko, baldin eta subjektu pasiboak borondatezko epean eskatu ondoren, ordainketa geroratu edo zatikatu izatea onartu bada. Onura hori eskuratzeko, sortutako ekitaldian bertan egin beharko da zerga-kuotaren ordainketa.

#### V. HOBARIAK

##### 5. artikulua



a) Higiezin hirigintza, eraikuntza eta higiezinaren promozio enpresen jardueraren xedeko higiezin bada –bai eraiki berria, bai eraikitzearen pareko eraberritzea izan duen eraikina– eta beren ibilgetuko ondasunekoak ez bada, hobari hauek aplikatuko dira zerga-kuota osoan, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi baino lehen:

b) Subjektu pasiboak familia ugariko titularrak badira, gehienez %90 ko hobaria izango dute zergan, familiako dirusarrerak kontuan hartuta taula honen arabera:

	<b>0- 25.552,80</b>	<b>25.552,811- 29.332,80</b>	<b>29.332,91- 34.927,20</b>	<b>34.927,21- 44.604,00</b>	<b>44.604,01- 60,000</b>
Gehienez 3 seme- alabako famiak	90%	75%	50%	35%	15%
4 seme- alabako famiak	90%	90%	75%	50%	35%
5 seme- alaba edo gehiagoko famiak	90%	90%	90%	75%	50%

Emakidarako baldintzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Ohiko etxe bizitza: Errolda-ziurtagiria.
- 180.000 €ko edo gutxiagoko etxebizitzaren balio katastrala: O.H.Z. ordainagiriaren kopia.
- Foru Aldundiko Gizartekintza Zerbitzuak igorritako familia ugariaren titulua indarrean.
- Beste ondasun higiezinaren batzuren jabea ez izatearen zinpeko aitortpena (garaje bat, trastero bat eta dagokion kasuan, bere jarduera profesionalaren lokala izan ezik).

Azaldutako hobariak soilik ohiko bizilekuari aplikatuko zaizkio; halaber, titularrek ezingo dute beste etxebizitzaren baten jabe izan.

Urtarrilean eskatu beharko zaio hobaria udalari, eta eskaerarekin batera familia ugariko titulua aurkeztu beharko da, eta unitateko kide bakoitzaren aurreko urteko errenta aitortpena..

**6.artikulua.-** ohiko bizilekua ez direlako errekarua duten bizileku erabilerako ondasun higiezinak  
1.-Subjektu pasiboak edo alokatzearen edo erabilerako lagatzearen bidez hirugarren ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak, zerga ordenantza honetako eranskinean jasotako errekaruari lotuta egongo dira.



2.- Bizileku erabilerako ondasun higiezinentzat joko dira, katastroan etxebizitza erabilerakotzat edo etxebizitza xedekotzat ageri diren, lokalak. Etxebizitzari atxikitakoak sartuko dira baldin erregistroko finka bakarra badira.

3.- Errekarguaren sujetu pasibo izandako zerga honen sujetu pasiboak.

4.- Errekargua, errekarua aplikatzen zaion zerga sortzen den unean bertan sortuko da eta kuotarekin batera galdatuko da.

7. artikulua: Ohiko bizilekutzat jotzea

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat egiazko ohiko bizilekutzat joko da. Baldin zerga sortzen den egunean udal honen biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

8.artikulua- Ohiko bizilekuak ez diren etxebizitza, xedea dela kausa errekarua aplikatzeari lotuta ez daudenak

Egiazko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira errekarua hau aplikatuzetik 6, artikuluan ezarritako baldintzetan, baldin inguruabar hauetakoren bat betetzen badute:

- e) Bere helburuen artean ondasun higiezina erretan ematearena duren erakunde publiko baten esku jarritakoak.
- f) Zahar etxeetan erroldatutako pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak
- g) Herentziaz jasotzen diren etxebizitzak urte betez egongo dira salbuetsita errekarua honetaz.

9 artikulua.- Errekargua aplikatzeko kudeaketa prozedura berezia

Udalak, ofizioz, ohiko egoiliarrik inskribatuta ageri ez zaien bizileku erabilerako ondasun higiezinaren titular izanik zerga honen sujetu pasibo direnen hasierako zerrenda egingo du.

Zerrenda horretan sartuta dauden sujetu pasibo guztiei jakinaraziko zaie onartzen den errekaruari lotuta dauden bizileku titularrak direla, behin behineko. Horrela, sujetu pasiboek egoki irudituz gero alegatu ahalko dute, behin betiko erabaki aurretik ondasun higiezinaren egoerari buruz, egiazko bizilekua den ala ez.

## V. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera onartu izan zena, 2024ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du harik eta aldaketarik egin edo derogatzen ez den arte.

### ERANSKINA:

Hiri ondasunak

- **HIRI ONDASUNAK** Lurzoru industrialeko %0,616 karga tasa  
Gainontzekoak %0,228 karga tasa
- **LANDA ONDASUNAK:** %0,51karga tasa



ZALDIBIAKO  
UDALA

Errekargua: ohiko bizilekuak ez direnentzat: %100





### 3.ORDENANTZA

#### TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

##### I. KAPITULUA: izaera eta zerga-egitatea

###### 1. artikulua.

1. Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga zuzeneko zerga da, eta trakzio mekanikodun ibilgailuen titularitatea zergapetzen du, horien maila, kategoria, potentzia, edukiera eta karga edozein dela ere, baldin eta ibilgailu horiek bide publikoetatik zirkula badezakete. Zirkulazio-baimenak Zaldibia adierazi behar du helbidetzat.

2. Erregistro publikoetan matrikulatutako autoak izango dira bide publikoetan zirkulatzeko gai, erregistro horietan bazarik hartzen ez duten bitartean. Aldi baterako baimena eta matrikula turistikoak dituzten ibilgailuek ere izaera hori izango dute, zerga honen aplikazio-eremuaren baitan.

3. Zergak ez ditu honako hauek zergapetuko:

- a) Erregistroetan baja emanda izanik, modeloaren antzintasuna dela-eta erakusketa, ekitaldi edo lasterketatan parte hartzeko baimena jaso duten ibilgailuek, baldin eta izaera horretako ibilgailuetara mugatutako ekitaldiak badira.
- b) Trakzio mekanikodun ibilgailuek atoian eramandako atoiek eta erdi-atoiek, baldin eta horien karga erabilgarria 750 kilogramokoa baino handiagoa ez bada.

##### II. KAPITULUA: Salbuespenak eta hobariak

###### 2. artikulua.

Zergatik salbuetsita izango dira:

a) Estatuko ibilgailu ofizialak, Euskal Autonomia Erkidegokoak, Gipuzkoako Foru Aldundikoak eta Gipuzkoako udal-entitateetakoak, Defentsara edo herritarren segurtasunera atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatiko, kontsul-bulego, diplomazia-agente eta karreradun kontsul-funtzionario kreditatuen ibilgailuak, titularrak haien herrialdeetako herritar badira eta identifikazioa agerian badute, eta, betiere, salbuespena elkarrekikoa bada herrialdeen artean, bai hedaduran, bai mailan. Halaber, salbuetsita izango dira nazioarteko erakundeetako ibilgailuak eta haien funtzionarioen edo estatutu diplomatikodun kideen ibilgailuak, baldin eta nazioarteko erakunde horiek egoitza edo bulegoa badute Estatu espainiarrean.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenek xedatutakoaren baitan, salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun-laguntzako nahiz zaurituak eta gaixoak garraiatzeko zeregin zuzena duten gainerako ibilgailuak.



e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboiei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a') Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago eman zaizkienean.

b') Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a») eta b') letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gupil aulkia eramateko egokituta badago»

Salbuetsita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago

f) Udal honek garraio publikorako jarritako edo administrazio-emakidapean garraio publikoko zerbitzura atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak; betiere, bederatzi plaza baino gehiago badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako Makineriako Inskripzio Kartila duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak.

2. Artikulu honetako 1. puntuko e) eta g) letretako salbuespenen onuradun izateko, interesatuek eskaera bat egin beharko dute, eta ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta salbuespen-onura eskuratu nahi izatearen arrazoia adierazi. e) apartatuaren arabera minusbaliotasuna duen pertsonaren bat ardurapean duten pertsonak Udalaren aurrean egiaztatu behar dute minusbaliotasun maila eta minusbaliotasuna duen pertsonarekin duten harremana».



3. Aurreko atalaren araupenaren baitan, ibilgailuen titularrek udalerrri honetan erroldatuta egon beharko dute eta udal honetako erregistro orokorrean eskatu beharko dute, idatziz, zerga honetatik salbuestea. Honako agiri hauek erantsi beharko dizkiete idatzizko eskaerari:

a) Mugikortasuna murriztua duten pertsonen edo soilik ezintasunak dituzten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak badira:

- Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Gizartegintzak edo haren ordezeko organismo edo aginte administratiboak emandako ziurtagiriaren ale originala.

a) Traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta nekazaritzako makinak badira:

- Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Nekazaritzako Makineriako Inskripzio Kartilaren fotokopia edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamenduko Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialeak alta emanda izatea akreditatzen duen agiria, ibilgailuaren titularraren izenean emandakoa, ezinbestean.
- Titularrak Nekazal ustialekua Zaldibian izatea

Gainera izango dute

- a) %100ko hobaria, ibilgailu historikoetarako (hala erregistratuta dauden kasuetan).*
- b) %75ko hobaria izango dute ibilgailu elektrikoak*
- c) %50ko hobaria izango dute ibilgailu hibridoek eta gasezkoak.*
- d) jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboek hobaria eskatzea, ibilgailu berriaren ezaugarrien fitxa teknikoa erantsiz.*
- e) Aurreko b) eta c) ataletan aurreikusitako hobariak lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita 4 ekitalditan zehar eskatu ahal izango dira. (Proposamena)*

### **III. KAPITULUA: Subjektu pasiboak**

#### **3. artikulua.**

Zerga honetako subjektu pasiboak dira Zerga alorreko Foru Arau Orokorreko 33. artikulua adierazitako pertsona fisikoak edo juridikoak eta entitateak, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean haien izena azaltzen den neurrian.

### **IV. KAPITULUA: Zerga-aldia eta sortzapena**

#### **4. artikulua.**

1. Zerga-aldia bat dator urte naturalarekin, ibilgailua lehen aldiz eskuratzen edo hari behin betiko baja ematen zaionean izan ezik. Salbuespenezko bi kasu horietan, eskuratzen den egunean hasiko da edo Trafikoko Buruzagitzan behin betiko baja gertatzen denean amaituko da zerga-aldia, hurrenez hurren.

1. Zerga-aldiko lehen egunean sortzapetzen da zerga



## **V. KAPITULUA: Zerga-kuota**

### **5. artikulua.**

1. Eranskinean adierazitako tarifa-taulari jarraiki ezartzen da zerga.

1. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo horiei behin betiko baja ematen zaienean, hil naturalei erreparatuta hainbanatuko da kuotaren zenbatekoa, eskuratu den edo baja gertatzen den eguneko hila barne hartuta.

Kuota modu berean hainbanatuko da, dagokion erregistro publikoan aldi baterako baja ematen bazaio ibilgailuari, hura lapurtua edo ebatsia izan delako.

2. Aurreko atalean adierazitako tarifak ibilgailuei nola aplikatuko zaizkien erabakitzeko, abenduaren 31ko 114/1999 Foru Dekretuak araututakoari erreparatuko zaio (foru dekretu horrek ibilgailu-mota desberdinen kontzeptua zehazten eta Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergako tarifaren aplikazio-arauak ezartzen ditu)

Berariaz:

1. Zerga honen baitan, zergaren tarifek adierazitako ibilgailu-moten kontzeptua zehazteko, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzeakoak, II. eranskinean adierazitakoari erreparatuko zaio.

2. Furgoiak, furgonetak, ibilgailu misto moldagarriak eta turismoen deribatuak turismo gisa zergapetuko dira, horien potentzia fiskalari erreparatuta. Hala ere, kamioi gisa zergapetuko dira ibilgailu horiek, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraia badezakete.

3. Autokarabanak turismo gisa zergapetuko dira, haien potentzia fiskala aintzat hartuta.

4. Adierazitako tarifa-taulak D) puntuan adierazten ditu, oro har, traktoreak. Hala, atoi kamioiak, obra eta zerbitzuetarako traktoreak eta autopropultsatutako makinak epigrafe horretan sartzen dira, betiere, bide publikoetatik zirkula badezakete trakzio mekanikodun beste ibilgailu batzuek garraiatu edo atoian eraman gabe.

5. Zerga honen baitan, motozikleta gisa zergapetuko dira hiru gurpileko ibilgailuak eta lautrizikloak, eta, ondorioz, haien zilindradari erreparatuta ordainduko dute zerga.

Ziklomotore gisa zergapetuko dira lautriziklo arinak.

6. Ibilgailu artikulatuek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dute zerga, bai atoi-potentzia daramanak, bai atoian eramandako atoiek eta erdi-atoiek.

1. Zaldi-indar fiskalen bidez adieraziko da potentzia fiskala, eta azken hori ezartzeko, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzeakoak, V. eranskinean adierazitakoari erreparatuko zaio.

## **VII. KAPITULUA: Kudeaketa eta likidazioa.**

### **6. artikulua.**



Zaldibiko Udalarri dagokio zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, biltzea eta zerga kudeaketaren baitan emandako egintza administratiboak berrikustea, baldin eta ibilgailuaren zirkulazio-baimeneko helbidea Azkoitiko udalerrian badago.

#### **7. artikulua.**

Zerga auto-likidazio-erregimenean kudeatzen da, zergan alta emanda dauden ibilgailuekiko, haien matrikulazioari eta zirkulazio-baimenari erreparatuta, eta, gainerako ibilgailuena, berriz, udalak urtero egiten duen erroldari jarraituta.

Udaletxean dauden inprimaki normalizatuetan egingo dira aitorten-likidazioak. Zerga kalkulatzeko elementuak jasoko dituzte aitorten-likidazioek, eta, haiekin batera, erosketa edo aldaketa akreditatzen duten agiriak, ezaugarri teknikoen ziurtagiria eta subjektu pasiboaren Nortasun Agiri Nazionala edo Identifikazio Fiskaleko Kodea aurkeztu beharko dira.

Aitorten-likidazioa eginda, zerga-kuotaren zenbatekoa entitate laguntzaileraren batean sartzeko aukera izango du interesatuak. Ibilgailua matrikulatu baino lehen, bulego kudeatzaileak egiaztatu egingo du ordainketa zenbateko zuzenaz egin dela eta egiaztapen horren fede emango du aitorten-inprimakian.

#### **8. artikulua.**

1. Zerga ordaindu izana akreditatu beharko da Trafikoko Buruzagitzan ibilgailu bat matrikulatzea eskatzeko, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtagiria eskatzeko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko.

1. Ibilgailuen titularrek zergaren kobrantzarako aurkeztutako azken ordainagiria ordaindu izana akreditatu beharko dute Trafikoko Buruzagitzan, ibilgailuaren aldaketa jakinarazten badute eta, horren ondorioz, ibilgailuaren sailkapena aldatzen bada zergaren baitan. Halaber, ordainketa hori egin izana akreditatu beharko dute, ibilgailuak eskualdatzeko, ibilgailuko zirkulazio-baimeneko helbidea aldatzeko edo ibilgailuari baja emateko. Horrek ez du eragotziko, ordea, kobrantzara aurkeztu diren eta preskribatu gabe dauden zor guztien ordainketa kudeaketaren eta ikuskapenaren bidez eskatzeko aukera, zor horiek sortzapetuta egon eta likidatuak izan daitezkeen neurrian. Ordainketa akreditatzeko betebeharretik salbuetsiko dira 15 urte edo gehiago dituzten ibilgailuen behin betiko bajak.

2. Trafikoko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen bajako edo eskualdaketako espedienterik izapidetuko, baldin eta ez bada, aurrez, zerga ordaindu izana akreditatzen.

#### **9. artikulua.**

Ez da berandutza-interesik eskatuko, baldin eta subjektu pasiboak borondatzeko epean eskatu ondoren, ordainketa geroratua edo zatikatua izatea onartu bada. Onura hori eskuratzeko, sortzapetu den ekitaldian ordaindu beharko da zerga.

### **VIII. KAPITULUA: Betebehar formalak eta zerga-betebeharrak.**

#### **10. artikulua.**

Zerga honen eraginpeko ibilgailuen titularrek Trafikoko Buruzagitzan egin behar dituzte zirkulazio-baimenean adierazten den helbidea haien ohiko bizilekuarekin bat etortzeko egin beharreko tramiteak.

### **IX. KAPITULUA: Erroldak**



## 11. artikulua.

1. Matrikulatutako ibilgailuek edo zirkulaziorako baimena jasota dutenek urtarrilaren 25etik martxoaren 25a bitartean ordainduko dute zergaren urteko kuota; hala, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktuen bidez iragarriko dira ordainketa epe hori, bai eta legediak aurreikusitako beste bitarteko batzuen bidez edota egoki iriztitako bideak erabiliz.

1. Aurreko epigrafean araututakoa betetzeko, urteko eroldaren sistema erabiliko da zerga-kuotak biltzeko. Trafikoko erregistro publikoaren datuak erabiliko dira eroldan aldaketak egiteko.

2. Erollda edo zergako matrikula jendaurrean erakutsiko da, 25 egunez, kobratze-epea hasten den egunetik kontatzen hasita, interesatu zilegiek hura aztertu eta alegazioak egin ditzaten, egoki iritziz gero. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko da jendaurreko erakustaldi-epea, eta subjektu pasiboei egindako likidazioaren jakinarazpentzat joko da iragarki hori.

## X. KAPITULUA: Itzulketak

### 12. artikulua.

Zerga sortzapetu ondoren ematen bazaio behin betiko baja ibilgailuari eta zerga-kuota jada ordainduta badago, udalak ofizioz itzuliko du haren zenbatekoaren zati proportzionala. Zati hori kalkulatzeko, ordenantza fiskal honen 5. artikuluko 2. puntuan araututako hainbanaketa egingo da.

### 13. artikulua. Xedapen gehigarria

11/1989 Foru Arauak araututako betez, zerga honetan aplikatzekoak izango dira zerga alorreko kudeaketa, likidazio, ikuskapen, bilketa eta arau-hauste nahiz zehapenei buruzko xedapenak, zerga-alorreko foru-arau orokorrak araututakoak.

### 14. artikulua. Xedapen indargabetzailea.

Indargabetu egiten da trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala, 1989ko abenduaren 31an behin betiko onartua.

### 15. artikulua. Azken xedapena.

2024ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean bai ordenantza hau, bai ordenantza honen eranskina, eta indarrean iraungo dute harik eta indargabetzen edo aldatzen diren arte.

IBILGAILU MOTA ETA INDARRA - KUOTA (€)	
A) Turismoak	
9 zaldi fiskaletik beherakoak	<b>35,32 €</b>
9 eta 11'99 zaldi fiskalera bitartekoak	<b>70,65 €</b>



ZALDIBIAKO  
UDALA

12 eta 13'99 zaldi fiskalera bitartekoak	<b>128,79 €</b>
14 eta 15'99 zaldi fiskalera bitartekoak	<b>169,46 €</b>
16 eta 19'99 zaldi fiskalera bitartekoak	<b>225,53 €</b>
20 zaldi fiskalera gorakoak	<b>287,44 €</b>
B) Autobusak	
21 eserleku baino gutxiago dutenak	<b>191,93 €</b>
21 eta 50 eserleku bitartekoak	<b>273,34 €</b>
50 eserlekutik goragokoak	<b>340,86 €</b>
C) Kamioiak	
Zama erabilgarria 1.000 kg baino gutxiago dutenak.	<b>86,63 €</b>
1.000 eta 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria dutenak	<b>170,66 €</b>
2.999 eta 9.999 kg bitarteko zama erabilgarria dutenak	<b>248,49 €</b>
9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria dutenak	<b>309,87 €</b>
D) Traktoreak	
16 zaldi fiskal baino gutxiago dutenak	<b>36,19 €</b>
16 eta 25 zaldi fiskalera bitartekoak	<b>56,89 €</b>
25 zaldi fiskal baino gehiago dutenak	<b>174,48 €</b>
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek arrastan eramandako atoi eta azpiatoiak	



ZALDIBIAKO  
UDALA

Zama erabilgarria 1.000 Kg. baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiago dutenak	<b>38,22 €</b>
1.000 eta 2.999 kg bitartekoa zama erabilgarria dutenak	<b>61,07 €</b>
2.999 Kg-tik gorako zama erabilgarria dutenak	<b>187,56 €</b>
F) Bestelako ibilgailuak	
Ziklomotorrak	<b>9,33 €</b>
125 cc-tik beherako motorrak	<b>9,33 €</b>
125 eta 250 cc bitarteko motorrak	<b>16,60 €</b>
250 eta 500 cc bitarteko motorrak	<b>34,01 €</b>
500 eta 1.000 cc bitarteko motorrak	<b>71,12 €</b>
1.000 cc-tik gorako motorrak	<b>142,24 €</b>





## 4.ORDENANTZA

### ERAIKUNTZA, INSTALAPEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA

#### I. kapitulua: Izaera eta egitate ezargarria

##### 1. artikulua.

1. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga zeharkako tributua da. Zaldibiako udalerrien barruan obra edo hirigintza lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea du zerga-gaia, lizentzia hori lortu edo ez, baldin eta lizentzia ematea ezarpena egiten duen udalari badagokio.
2. Zerga ordaintzetik salbuetsita dago edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horren jabeak Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Estatua edo udal entitateak direnean, baldin eta, zergari lotuta egonik, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko eta populazioen eta ur zikinen saneamendura zuzenduta badago, nahiz eta horien kudeaketa, dela inbertsio lanetan dela artapan lanetan, organismo autonomoek egin.

#### II. kapitulua: Sujetu pasiboak

##### 2. artikulua.2

13 Eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisiko, pertsona juridiko eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3 apartatuan aipatzen dituen entitateak dira, zergadun gisa, zerga honen subjektu pasiboak, haiek egiten diren ondasun higiezinaren jabeak izan edo ez. Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, lanek sortarazten dituzten gastuak edo kostua jasaten dituen izango da eraikuntza, instalazio edo obraren jabea.

2. Eraikuntza, instalazio edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, beharrezko lizentziak eskatu edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak zergadunaren ordezkotako subjektu pasibotzat hartuko dira. Ordezkoak zergadunari exijitu ahal izango dio ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa.

#### III. kapitulua: Oinarri ezargarria, kuota eta sortzapena

##### 3. artikulua.

1. Eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuak eratzten du Zergaren oinarri ezargarria; ondorio horietarako, kostu hori eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostu materiala dela jotzen da. Oinarri ezargarritik kanpo geratzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta erregimen berezietako antzeko beste zergak, eraikuntza, instalazio edo obrekin lotuta egon litezkeen tasa, prezio publiko eta udal mailako gainerako ondare-prestazioak, eta, orobat, profesionalen ordainsariak, kontratistaren enpresa mozkin eta hertsia-hertsian exekuzioaren kostu materiala osatzen ez duten bestelako kontzeptuak.
2. Oinarri ezargarriari karga tasa aplikatuz aterako da Zerga honen kuota.
3. Zergaren karga tasa Udalak finkatuko du, eta ezingo da 100eko 5etik gorakoa izan.
4. Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan gertatzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

#### IV. kapitulua: Kudeaketa

##### 4. artikulua.



1. Derrigorrezko lizentzia ematen denean edo, derrigorrezko lizentzia hori oraindik eskatu, eman edo ukatu gabe egonik, eraikuntza, instalazio edo obra hasten denean, konturako behin-behineko likidazio bat egingo da, eta oinarri ezargarrria honela kalkulatu da:
  - a) Interesatuak aurkeztutako aurrekontuaren arabera, beti ere dagokion Elkargo Ofizialak aurrekontua bisatu bada hau nahitaezko baldintza den kasuetan.
  - b) Ordenantza fiskalak hala ezartzen duenean, bertan finkatzen diren indize edo moduluen arabera.
2. Eraikuntza, instalazio edo obra amaitutakoan, eta haren kostu erreal eta efektiboa aintzat harturik, Udalak, bidezko egiaztapen administratiboa egin ondoren, aurreko apartatuan aipatutako oinarri ezargarrria aldatuko du, hala badagokio. Kasu horretan, behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari behar den zenbatekoa eskatu edo, hala bada, itzuliko dio.
3. Eraikuntza, instalazio edo obrari dagokion hirigintza lizentzia jasotzeagatik subjektu pasiboak tasa gisa ordaindu duen edo ordaindu behar duen zenbatekoa kuota osoan kenkariduna izatea edo Zergan hobarituta egotea arautu dezakete ordenantza fiskalek.
4. Udalek auto-likidazio erregimenean eskatu ahal izango dute Zerga hau.
5. Udalek zerga hau eta lizentzia emateko tasa modu bateratu eta koordinatuan kudeatzeko sistemak ezarri ahal izango dituzte beren ordenantza fiskaletan.

## V. Kapituluak : Hobariak

### 5. artikulua. Hobariak

1.- Honako hobariak aplikatuko dira Zaldibian:

a) %95eko hobaria arte, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin. Kasu honetan egongo dira:

1. Baserrietan nekazal eraikuntzak egitea bertan ematen den aktibitateak justifikatzen bada: %90 profesionalentzat, gainontzekoak %50
2. Zaldibian interesa duten eta hirigintza katalogoan azaltzen diren etxeak eraberritze lanak. %95
3. Fatxaden eta teilatuen hobetze, konpontze edo berritze lanak: %75. Energia eraginkortasunean hobekuntza neurgarria ematen bada.
4. Egikaritze-unitateetan sartuta ez dauden bizitegi-eraikinak birgaitzeko obrak, nahiz eta birgaitzeak eraikigarritasuna handitu gabe handitzea ekarri, betiere lehendik dauden etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak betetzeko beharrezkoa bada: %75
5. Interes bereziko edo udal onurakoak izendatuta daudenean, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak direlako izendapen hau mereziko dutenek. Izendapena Udalbatzak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

b) %95eko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obraren eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatzekotan, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur beroko sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte. Hobari hori ondorengo balizko egoeran baino



ez da aplikatuko: dagokion araudiak aipatutako sistemak instalatzea eskatzen ez duenean.

Era berean, hobaria ondorengoetan baino ez da aplikatuko: energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak (eguzkia energia, edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoari) gehitzen dituzten instalazio eta obrarako diru-partidari dagokion kuota zatiaren gainean.

c) %50eko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrak azpiegituretan inbertsio pribatuak sustatzeko planekin lotuta daudenean. Hain zuzen, Merkataritza lokalen modernizazioa.

d) %50eko hobaria, babes publikoko etxebizitzekin zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean.

e) %90ko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean. Igogailuak jartzea, aldatzea, inguratzaile termikoa jartzea energia eraginkortasuna hobetzeko eta abar.

2. Aurreko 1 apartatuko a) letran aipatzen den hobaria aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko b) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

Aurreko 1 apartatuko a) eta b) letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko c) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

Aurreko 1 apartatuko a), b) eta c) letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko d) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

Aurreko 1 apartatuko a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko e) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

Artikulu honetan aipatzen diren hobarien gainerako alderdi substantibo eta formalak ordenantza fiskalean arautuko dira. Besteak beste, ordenantza fiskalak ezarri ahal izango du hobari horiek guztiak edo horietako batzuk aldi berean aplika daitezkeen edo ez.

## INDARGABETZE XEDAPENA

Arau honen aurretik Zaldibiko udalak onartu dituen arau denak indargabetuta gelditzen dira arau hau indarrean sartzen den egunetik.

## ERANSKINA.

Tarifak:

Obra handia .....%5

Obra txikiak.....%3,5



## 5.-ORDENANTZA.

### UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

#### I. XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. artikulua.- Ezarri beharreko araudia

Udal honek Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zerga ezarri eta eskatu du, indarreko ordenantzaren arabera eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzeari buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan eta Zerga honi buruzko 16/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorruta.

##### 2. artikulua. Lurralde-eremua.

Ordenantza Zaldibiako udalerrri osoan ezarri da

#### II.- ZERGAGAIA

##### 3. artikulua.- Zergagaia

1.- Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko zerga bat da, eta hiri-lurren balio-gehiak zergapetzen du, lursail horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzearen ondorioz, edo jabaria mugatzen duen edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzearen ondorioz.

2.- Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira hiri-lurtzat:

- a) Hirigintza arloko plangintzak hirikotzat, urbanizatutzat edo horien baliokidetzat sailkatzen edo definitzen dituenak.
- b) Lurzoru urbanizagarritzat jotzen diren lursailak, edo lurralde eta hirigintza arloko antolamendurako tresnek lurzoru urbanizatuaren egoeran sartzea aurreikusi edo horretarako aukera eman dutenak, betiere sektore edo eremu espazial mugatuetan sartuta badaude. Aurrekoek gain, horrelako izaera duten gainerako lurzoruak barne hartzen ditu, horiek garatzeko zehaztapenak ezartzen dituen hirigintza arloko tresna onartzen den unetik aurrera.
- c) Nekazaritza-legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak, betiere zatikatze horrek nekazaritza-erabilera indargabetzen badu, eta horrek ez badu landa-izaera aldatzen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

#### III.- APLIKAZIO EREMUTIK KANPO

##### 4. artikulua.- Zergari lotuta ez daudenak

Honako hauek ez dira zerga honen pean egongo:

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako landa-lurren balio-gehiak. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako hirikotzat jo behar diren lursailek izango duten balio-gehiak zergaren mende egongo da, katastroan edo haren erroldan halakotzat jasota egon edo ez.



2. Ezkontideek ezkontza-sozietateari ekarritako ondasun eta eskubideen ekarpenak, haien alde eta horien ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak eta ezkontideei beren ondasun komunen ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Ez da zergari lotuta egongo honako hauen artean ondasun higiezinak eskualdatzen direnean ere: ezkontideak; maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikotekideak; eta ezkontzaren deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa dagoenean epaiak betetzearen ondorioz, seme-alaben alde egindakoak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edozein dela ere.

3. Lursailen eskualdaketak, horiek eskualdatu eta eskuratu direneko balioen artean gehikuntzarik ez dela egon egiaztatu bada.

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatu nahi duen erakundeak eskualdaketa aitortu eta eskualdaketa edo eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu beharko ditu. Ondorio horietarako, erakunde interesduntzat hartuko dira ordenantza honen 6. artikuluan aipatzen direnak.

Balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko, kasu bakoitzean hurrengo balio hauetako handiena hartuko da kontuan: eragiketa dokumentatzen duen tituluan jasotakoa edo, hala badagokio, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Gainera, ondorio horietarako, ezin izango dira eragiketa horiek zergapetzen dituzten gastu edo zergak zenbatu.

Lurzorua eta eraikuntza dituen higiezin bat eskualdatzen denean, ondorio hauetarako honako hau hartuko da lurzoruaren balioz: zergaren sortzapen-datan luraren katastro-balioa guztizko katastro-balioarekiko ordezkatzeko duen proportzioa aplikatuz ateratzen den balioa. Gainera, proportzio hori eskualdatze-balioari eta, hala badagokio, eskuratzeko-balioari aplikatuko zaio eta bi hamartarrez adierazi beharko da.

Eskuraketa edo eskualdaketa irabazi-asmorik gabekoa izan bada, aurreko lerroketan ezarritako arauak aplikatuko dira eta, hala badagokio, konparatzeko lehenago aipatutako bi baloreetatik lehena hartuko da kontuan, hau da, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan aitortutakoa.

4. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluan araututako araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketetatik eratorritako hiri-lurak eskualdatzen direnean, foru-arau horren 111. artikuluan aurreikusitakoaren babesean ekarritako lursailei buruzkoak izan ezik, jarduera-adar batean integratuta ez daudenean.

## IV.- SALBUESPENAK

### 5. artikulua.- Salbuespenak

1. Zerga honetatik salbuetsita daude egintza hauen ondorioz agertzen diren balio-gehikuntzak:

a) Zortasun-eskubideen sorrera eta eskualdatzea.

b) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 4.2)e) artikuluan aurreikusitako salbuespena ezartzearen ondorio diren ondasunen eskualdaketak, horien jabeek edo eskubide errealeen titularrek higiezin horiek iraunarazteko, berroneratzeko edo eraberritzeko obrak beren kargura egin dituztela egiaztatzen dutenean

2. Era berean, dagozkion balio-gehikuntzak salbuetsita egongo dira, hura ordaintzeko betebeharra honako erakunde hauei dagokienean:



- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Estatuko erakunde autonomoak eta lurralde-administrazio horietako antzeko izaera duten zuzenbide publikoko erakundeak.
- b) Udal hau eta gainerako toki-erakundeak (udalerraren barrukoak zein udalerrri bera kide dutenak), udalaren baitako zuzenbide publikoko erakundeekin batera, horiek aipatutako Administrazio Publikoen antzeko izaera dutenean.
- c) Ongintzazko edo irakaskuntza arloko ongintzazko erakundeak.
- d) Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateak, indarrean dagoen legeriaren arabera.
- e) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan salbuespena aitortuta duten erakundeak.
- f) Administrazio-emakida itzulgarrien titularrak, horiei atxikitako lursailei dagokienez.
- g) Gurutze Gorria eta erregelamendu bidez zehaztutako antzeko beste erakunde batzuk.
- h) Irabazi-asmorik gabeko erakunde batek zerga hori ordaintzeko legezko betebeharra duenean, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurak eskualdatzen badira edo horien gaineko jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eratzen badira eta irabazi-asmorik gabeko erakunde batek kostu bidez egiten baditu, zerga horren salbuespena egiteko, lursail horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Era berean, salbuespen hori aplikatzeko, irabazi-asmorik gabeko erakundeek apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 16. artikuluan 1. paragrafoan araututako aukera baliatu dutela Udalari jakinaraztea eta Foru Arau horren II. tituluan jasotako zerga-araubide bereziari buruzko baldintza eta balizkoak betetzea ezinbestekoa izango da.

## V.- SUBJEKTU PASIBOAK

### 6. artikulua.- Subjektu pasiboa

1. Honako hauek dira zergaren subjektu pasiboak, zergadun gisa:

- a) Lursailen eskualdaketetan edo irabazpidezko jabariak mugatzen duten gozamen-eskubide errealen eraketan edo eskualdaketan, lursaila eskuratzen dutenak (pertsone fisiko zein juridikoak edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak edo testamentu-ahalmenaren bidezko gozamina gauzatu gabeko jaraunspenak) edo dagokion eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaien pertsonak.
- b) Lursailen eskualdaketetan edo ordainbidezko jabariak mugatzen duten gozamen-eskubide errealen eraketan edo eskualdaketan, lursaila eskualdatzen dutenak (pertsone fisiko zein juridikoak edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak edo testamentu-ahalmenaren bidezko gozamina gauzatu gabeko jaraunspenak) edo dagokion eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duten pertsonak.

2. Aurreko paragrafoaren b) letran aipatutakoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira Foru Zerga Arau Orokorreko 35.3 artikuluan aipatzen den pertsona fisiko zein juridikoak edo erakundeak, bai eta testamentu-ahalmena gauzatu zain dagoen jaraunspenak ere, baldin eta lursaila



eskuratzen badute edo dagokion eskubide erreala haien alde eratu edo eskualdatu bazaie, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean eta hura ordezkaria izendatzera behartuta ez badago, edo ordezkaria izendatzera behartuta egon arren, zerga honen bidez ordezkutzen duenaren zerga-zorra ordaintzeko betebeharrari modu solidarioan erantzun ez badio.

3. Ohiko etxebizitzaren hipoteka-exekuzioaren ondorioz lursailak eskualdatzen direnean, zergadunaren ordezeko subjektu pasibotzat hartuko da lurra eskuratzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. paragrafoan aipatzen den erakundea.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, ordezekoak ezingo dio zergadunari eskatu ordaindutako zerga-betebeharraren zenbatekoa.

Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 3/2014 Foru Arauaren 87. artikuluan hala definitutakoa.

4. Baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko premiazko neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan aplikazio-eremuaren barruan dauden zordunek egindako eskualdaketetan, arau horren eranskinaren 3. paragrafoan aurreikusitako etxebizitza ordainean ematearen ondorioz, higiezina eskuratzen duen erakundea hartuko da zergadunaren ordezeko subjektu pasibotzat. Hala, ordezekoak ezin izango dio zergadunari ordaindu beharreko betebeharren zenbatekoa eskatu.

## **VI. ZERGA OINARRIA**

### **7. artikulua.- Zerga-oinarria zehaztea**

1. Zerga honen oinarria sortzapenaren unean agerian jarritako eta gehienez ere 20 urteko epean hiri-lurrek izandako balioaren benetako gehikuntza izango da. Hurrengo 2. paragrafoan xedatutakoa baztertu gabe, hura zehazteko, sortzapenaren uneko lurraren balioa I. eranskinean ezarritako koefizientearekin biderkatuko da, ordenantza honen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta.

2.- Subjektu pasiboak eskatuta, ordenantza honetako 4.3 artikuluko prozeduraren arabera, balio-gehikuntzaren zenbatekoa aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen denean, balio-gehikuntzaren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

### **8. artikulua.- Lurraren balioa.**

Lurra sortzapenaren unean duen balioa arau hauetan ezarritakoaren arabera izango da:

1. Lursailen eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarako finkatutakoa izango da.

Hala ere, aipatutako balio hori balio-ponentzia baten ondorioa denean eta hura onartu ondoren, planeamenduan aldaketarik jaso ez bada, zerga hori, behin-behinean, txosten horren arabera likidatu ahal izango da. Horrelakoetan, behin betiko likidazioan lurren balioa aplikatuko da, sortzapen-datari dagokionez izapidetzen diren balorazio-prozeduren arabera lortu ondoren.



Lurzoruak, hiri-izaera izan arren, zergaren sortzapenean katastroko balio jakinik ez badu, udalak likidazioa egin ahal izango du katastroko balio hori zehaztua denean. Gainera, balio hori sortzapen-uneari egokituta egongo da.

2. Jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealeen eraketan eta eskualdaketan, I. Eranskinean jasotako urteko koefizienteak ezarriko zaizkio aurreko paragrafoan definitutako balioaren zatiari; zati horretan islatuta dago, hain zuzen, eskubide horien balioa, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatutako arauei jarraiki kalkulaturakoa.

3.

Ondorio horietarako, arau hauek bete beharko dira:

- a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioarekiko proportzionala izango da, urtebeteko aldi bakoitzeko 100eko 2, ehuneko 70 gainditu gabe.
- b) Biziarako usufektuetan, balioa ondasunen balio osoaren 100eko 70 dela zenbatetsiko da, gozamedunak 20 urte baino gutxiago dituzenean eta, adinak gora egin ahala, beste urte bakoitzeko 100eko 1 gutxituko da, balio osoaren 100eko 10eko mugarekin.
- c) Pertsona juridiko baten alde eraturako usufektua, 30 urtetik gorako edo zehaztu gabeko eperako ezarri bada, zergei dagokienez, suntsiarazteko baldintzari lotutako jabetza osoaren eskualdatzea dela ulertuko da.
- d) Aurretik eraturako gozamen-eskubide baten eskualdaketan, aurreko arauei jarraiki eratu zen egunean esleitutako ehuneko bera aplikatuko da.
- e) Jabetza soilaren eskubidearen balioari dagokienez, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko aldearen arabera zenbatuko da. Era berean, aldi baterakoak diren biziarako usufektuetan, jabetza soila baloratzeko, aurreko lehenengo zenbakiko arauetatik balio txikiena ematen diona ezarriko da.
- f) Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealeen balioa kalkulatzeko, ondasunen balioaren 100eko 75 aplikatuko da. Ondasun horiei ezarri zitzaizkien aldi baterako edo biziarako gozamenak balioztatze arauak, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

3. Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago igotzeko edo lurzoruaren azpian eraikuntza egiteko eskubideak eratzean edo eskualdatzean, azalera-eskubide errealik dagoenik eragin gabe, ordenantza honen I. Eranskinean jasotako urteko koefizienteak 8. artikuluko honen 1. paragrafoan zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, baldin eta, horri dagokienez, eskualdatzeko eskrituran finkatutako proportzionaltasun-modulua islatzen badu edo, halakorik ezean, lur arrasean edo lur azpian eraiki beharreko solairuen azalaren eta behin eraikita horiek duten azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa ezartzearen ondoriozkoa.

4. Derrigorrezko desjabetzeen kasuetan, ordenantza honetako I. Eranskinean jasotako urteko koefizienteak lurraren balioari dagokion balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, 8. artikuluko honetako 1. paragrafoan zehaztutako lurraren balioa txikiagoa denean izan ezik; izan ere, halakoetan balio justua lehenetsiko da.

## 9. Artikulua.- Balio-gehikuntza sortu den aldia

Balio-gehikuntza sortu den aldia gehikuntza hori agerian jarri den urte-kopurua izango da.

Aplikazio-eremutik kanpoko kasuetan, Foru Arauak bestelakorik adierazi ezean, ondorengo lur-eskualdaketan batean agerian jarritako balio-gehikuntza sortu den aldia kalkulatzeko, aurreko lerrokan





xedatutakoaren ondorioetarako, zergaren aurreko sortzapena gertatu zen eguna hartuko da eskuratze-datatzat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatu behar zaien higiezin onorengo eskualdaketan, lurren balio-gehikuntza agerian jarri den urte-kopurua zenbatzeko, ez da kontuan hartuko eskuratu aurreko aldia.

Igarotako urte-kopurua zenbatzeko, urte osoak hartuko dira kontuan, hau da, urte-zatiak kontuan hartu gabe. Sortu den aldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hilabete osoen kopurua kontuan hartuta hainbanatuko da, hau da, hil-zatiak kontuan hartu gabe.

#### **10. Artikulua.- Koefizienteak**

Sortzapenaren uanean lurzoruak duen balioari aplikatu beharreko koefizienteak, balio-gehikuntza sortu den aldiaren arabera, I. eranskinean ezarritakoak izango dira.

### **VII.- KARGA TASA, KUOTA ETA HOBARIAK.-**

#### **11. Artikulua.- Karga-tasa**

Aplikatu beharreko karga-tasa kasu bakoitzean dagokiona izango da, II. eranskinaren arabera.

#### **12. Artikulua.- Kuota**

- 1.- Zerga honen kuota zerga-oinarriari dagokion karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da.
- 2.- Zergaren kuota likidoa kuota osoari dagokion hoberia aplikatzearen emaitza izango da, hala badagokio.

#### **13. Artikulua.- Hobariak**

Kuotaren % 50ko hoberia izango dute lurren eskualdaketetan eta jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealeen eskualdaketa edo eraketatan, beti ere kostu gabeko eraketa edo eskualdaketak badira eta ondorengo ahaideen, adoptatuen, ezkontideen, aurreko ahaideen edo adoptatzaileen alde egiten badira heriotza dela-eta. Bizi artekoen oinordetza-itunetan ez da aplikatu hoberia.. Hoberia izateko, dena den, aurrena Udalak onartu behar du hoberia izateko eskubidea izatea.

### **VIII.- SORTZAPENA**

#### **13. Artikulua.- Sortzapena**

1. Honako kasu hauetan sortzen da zerga:
  - a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostuen bidez edo doan, bizien artean edo heriotzaren ondorioz, eskualdaketaren egunean.
  - b) Jabaria mugatzeko edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa egiten den egunean.
2. Aurretik xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira eskualdatze-datatzat:
  - a) Bizien arteko egintza edo kontratuetan, agiri publikoa egiletsi denean eta, agiri pribatuetan, agiri horiek erregistro publikoan sartu edo inskribatu direnean edo, bere lanbidea dela eta, funtzionario publiko bati eman zaionean.



b) Heriotza-ziozko eskualdaketetan, kausatzailea hil deneko data.

3. Baldin eta, epai edo administrazio-ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurak edukitzeko eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua deuseztaturik, hutsaldurik edo suntsiarazirik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zerga berari itzultzeko eskubidea izango du. Beti ere egintza edo kontratu hori irabazteko ondorerik gabekoa bada eta zergaren itzulketak ebazpen irmoa ematen denetik bost urte igaro baino lehen eskatu bada. Interesatuek elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluko itzulketak egin beharra dutela bidezkotu ezean, irabazteko asmoa dagoela ulertuko da. Hutsalketa edo suntsiarazpena zergapeko subjektu pasiboak eginbeharrak ez betetzearen ondorioz adierazi bada, ez da itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorerik gabekoa izan.

4. Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua efekturik gabe utzi badute, ez da ordaindutako zerga itzuliko eta egintza zergapeko egintza berriztatzen joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze-ekitaldian adostutakoa eta bai eskariari amore-emate hutsa.

5. Egintzek edo kontratuek baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga erreserba gisa eskatuko da, aurreko ataleko arauari jarraituz, dagokion itzulketak egiteko baldintza betetzen denean.

6. Testamentu-ahalmenetan, pertsona jakin batek jarauntsiz ondasunen gozamenarako eskubidea bizi artean duenean, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, oinordetza ireki deneko sortze-datarekin, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera eta biziarteko gozamenaren arauak aplikatuz.

Testamentu-ahalmenetan, gozamena botere hori erabiltzean azkentzen bada, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehen likidazioa, heriotza gertatzen denean, biziarteko gozamenaren arauak aplikatuta.

Hala ere, testamentu-ahalmena gauzatzeko epe jakin bat badu, lehen likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauen arabera egingo da, ahalmen hori egikaritzeko ezarritako gehieneko epean.

b) Beste likidazio bat, testamentu-ahalmena erabiltzean, aldi baterako gozamenaren arauari erreparatuta, kausatzailea hil zenetik igarotako aldiarengatik, aurrekoagatik ordaindutakoa konturako sarreratzat hartuta, eta aldea gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

Eta b) hizkiari dagokion likidazioa oinordekoena egiten den unean egin beharko da, testamentu-ahalmenaren oinordekoak direla adierazten badu, edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik.

7. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, xedapen-egintzen ondorioz testamentu-ahalmena egikaritzeko dauden jaraunspenak eragindako lursailen eskualdaketetan, eskualdatze horiek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez badakarte, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko 16/1989 Zergaren xedapen orokorrak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

a) Oinordetza Zergaren subjektu pasiboa izango da testamentu-ahalmena egikaritzetik geratzen dena, eta zerga eskualdaketa gertatzen den unean sortuko da.

b) Zerga-kuota zehazteko, likidazio bat egingo da, eskualdaketaren unean sortuko dena, kausatzaileak lurra erosi zuenetik igarotako denboragatik. Gainera, diru-sarrera gisa eman zena kontuan hartuko da 6. paragrafoan xedatutakoaren arabera egindako likidazioan ordaindutakoa.



Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera xedapen-egintzen ondorioz, testamentu-ahalmena egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez eskuratutako lursailak eskualdatzen direnean, likidazio bat egingo da, eta eskualdaketaren unean sortuko da, jaraunspenaren bidez lurra eskuratu zenetik igarotako denboragatik.

c) Testamentu-ahalmena modu ezeztazinean erabiltzen denean, edo hura azkentzeko arrazoietakoa bat gertatzen denean, jaraunspen bidez eskuratuak izan arren, testamentu-ahalmena egikaritu zain dauden lurak eskualdatzen badira, ekainaren 25eko 5/2015 Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legeak adierazi duen bezala, likidazio bakarra igorriko zaio gozamenunari, aldi baterako edo biziarteko gozamenaren arauen bidez. Lursailaren izaeraren arabera, egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez lursaila eskuratu zuenetik testamentu-ahalmena gauzatu arte igarotako denboragatik. Hobaria testamentu-ahalmena erabiliz azkentzen den kasuetan, likidazio bat igorriko zaio gozamenunari aldi baterako gozamenaren arauen bidez, lurra testamentu-ahalmena egikaritzeko dagoen jaraunspenak eskuratu zuenetik igarotako denboragatik. Likidazio hori jaraunslerei dagozkienak egitean egin beharko da, baldin eta testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena erabiltzeagatik edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik jaraunslerek badira.

## IX.- ZERGA KUDEATZEA

### 14. Artikulua.- Zerga kudeatzeko sistema

#### A) AUKERA: AITORTZEKO SISTEMA

Zerga kudeatzeko Udala honek aitorten-sistema ezartzen du, honako atal hauetan xedatutakoaren arabera:

1.- Subjektu pasiboek aitortzen aurkeztu behar diote Udalari, beronek ezarritako ereduaren arabera egina. Eredu horretan likidazioa egiteko behar diren zerga-elementuak eta gainerako datuak agertuko dira.

Adierazpenarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Bizien arteko egintzei buruzko eskualdaketak: zergak ordaintzeko betebeharra sortu duen egintza edo kontratua formalizatu duen dokumentuaren kopia, publikoa zein pribatua.
- b) Heriotzaren kausazko eskualdaketak, jaraunspena esleitu duen eskrituraren kopia edo halakorik ezean:
  - Zatiketa-koaderno pribatua, halakorik balego.
  - Azken borondatearen ziurtagiria.
  - Testamentua edo, hala badagokio, jaraunsleren abintestatuko adierazpena.

c) Eskualdatutako higiezinaren eskuraketaren tituluen kopia.

Bi eskualdatze-motetarako eta, gainera, dohainik bada, ondasunen balorazioa jasotzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioaren/aitortenaren kopia.

2.- Ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz loturarik ez badago, beren beregi jasoko da hori adierazpenean.

3.- Subjektu pasiboak ordenantza honen 7. artikuluko 2. atalean xedatutakoarekin bat etorri erabakitzen badu zerga-oinarria, beren beregi jasoko da aitortzearen. Hautatutako aukera ezin izango da



aldatu zerga-administrazioak zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatesteko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, segurtatzeko edo likidatzeko edozein ekintza egin badu, zergapekoak horren berri formala izanda.

4.- Testamentu-ahalmena egikaritu zain dauden jaraunspenetan, aurreko betebeharrak betetzea horien administratzaileari dagokio. Administratzaileak aitortpena sinatu beharko du eta dagokion zerga-zorra ordaintzeaz arduratuko da.

Era berean, zerga ordaintzearen erantzule subsidiarioa izango da testamentu-ahalmena gauzatu zain duen jaraunspenaren administratzailea.

5. Eskatutako salbuespenak edo hobariak agiri bidez justifikatu beharko dira.

## **B) AUKERA: AUTOLIKIDAZIO SISTEMA**

Udal honek zergak kudeatzeko autolikidazio-sistema ezarri du, ondorengo ataletan xedatutakoaren arabera:

1.- Subjektu pasiboek udal honetan autolikidazioa aurkeztu beharko dute, emango den eredu ofiziala jarraituz. Eredu horrek kuota zehazteko zerga-harremanaren elementuak jasoko ditu, bai eta horren ondoriozko zenbatekoa ordaindu ere, ordenantza honen 15. artikuluan aurreikusitako epeetan.

Autolikidazioarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

2.- Ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, balio-gehikuntzarik ez egoteagatik loturarik ez badago, egoera hori beren beregi jasoko da emandako ereduan.

3.- Subjektu pasiboak zerga-oinarria zehaztea erabakitzen badu, ordenantza honen 7. artikularen 2. atalean xedatutakoaren arabera, aukera hori beren beregi jasoko da emandako ereduan. Hautatutako aukera ezin izango da aldatu zerga-administrazioak zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatesteko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, segurtatzeko edo likidatzeko edozein ekintza egin badu, zergapekoak horren berri formala izanda.

4.- Testamentu-ahalmena egikaritu zain dauden jaraunspenetan, horien administratzaileari dagokio aurreko eginbeharrak betetzea. Administratzaileak aitortpena sinatu beharko du eta, gainera, dagokion zerga-zorra ordaintzeaz arduratuko da.

Era berean, jaraunspenaren administratzailea zerga ordaintzearen erantzule subsidiarioa izango da testamentu-ahalordea egikaritu zain dagoenean.

5.- Eskatzen diren salbuespenak edo hobariak agiri bidez justifikatu beharko dira.

6.- Autolikidazioak egiaztatzea.

Autolikidazioak egiaztatuko ditugu. Hala, behin-behinekoak eta likidazioa egitean ateratzen den kuotaren konturakoak izango dira. Autolikidazio horiei dagokienez, pertsona edo erakunde interesdunak edo subjektu pasiboak, ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan eta 7. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, aitortutako balioak egiaztatzeko ahalmena baztertu gabe, zergaren arauak behar bezala ezarrita egin direla soilik egiaztatu ahal izango da eta ezin izango da arau horietatik kanpoko balio, oinarri edo kuotarik esleitu.



Udala ez badago autolikidazioarekin ados, behin betiko likidazioa egingo du, gaizki aplikatutako elementu edo datuak eta akats aritmetikoak zuzenduta, berandutze-interesak kalkulatuko ditu eta, hala badagokio, bidezkoak diren zehapenak ezarriko ditu. Era berean, subjektu pasiboak aitortu ez dituen baina dokumentuan jasota dauden zerga-gaiei dagokienez, udalak haien likidazioa halaxe egingo du.

#### **15. artikulua.- Epeak**

Aitorpena honako epe hauetan aurkeztu beharko da, zerga sortu den egunetik zenbatzen hasita:

- a) Bizien arteko egintzak direnean, epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da.
- b) Heriotzagatiko egintzen kasuan, epea sei hilabetekoa izango da, eta urtebetera arte luzatu ahal izango da subjektu pasiboak hala eskatuz gero

#### **16. artikulua.- Dokumentazio gehigarria eskatzea**

Udalak hogeita hamar eguneko epean zergaren likidazioa gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen beste agiri batzuk aurkez ditzatela eskatu ahal izango die pertsona edo erakunde interesdunei. Epe hori beste hamabost egunez luzatu ahal izango da, interesdunak hala eskatuta. Gainera, epe horien barruan egindako errekerimenduei erantzuten ez dietenek zerga arloko arau-hausteak egin eta horiei dagozkien zehapenak izango dituzte, dokumentu horiek adierazpena egiaztatzeko beharrezkoak diren heinean. Dokumentu horiek interesdunak bere onerako alegatutako inguruabarrak frogatzeko bidea baino ez badira, errekerimendua ez betetzeak likidazioa egitea ekarriko du, alegatutako eta justifikatu gabeko inguruabarrak alde batera uzteaz gain.

#### **17. artikulua.- Beste pertsona edo erakunde batzuk jakinarazteko duten betebeharra**

14. artikuluan xedatutakoa gorabehera, hurrengo hauek zerga subjektu pasiboen epe berberetan ordaindu dela jakinarazi beharko diote Udal Administrazioari:

- a) Ordenantza Fiskal honetako 6. artikularen a) letran jasotako kasuetan, bizirik daudenen arteko negozio juridikoan eman badira, emailea edo eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen duen pertsona.
- b) Aipatutako 6. artikuluko b) letran jasotako kasuetan, eskuratzailerak edo eskubide erreala eratu edo eskualdatu zaion pertsona.

#### **18. artikulua.- Notarioen betebeharrak**

Notarioek nahitaez bidali beharko diote udalari, hiruhileko natural bakoitzeko lehenengo hamabostaldian, aurreko hiruhileko naturalean baimendutako agiri guztiak jasotzen dituen zerrenda edo aurkibidea. Zerrenda edo aurkibide horrek, nolahi ere, esku hartzen duten alderdien datuak jaso beharko ditu: izen-abizenak, NAN-zenbakia eta helbidea. Dokumentu horietan, zerga hau udalerrian ordaindu dela agerian uzten duten egitate, egintza edo negozio juridikoak azalduko dira, azken borondatezko egintzak izan ezik. Halaber, epe beraren barruan, sinadurak ezagutzeko edo legitimatzeko asmoz aurkeztu zaizkien dokumentu pribatuen zerrenda bidali beharko dute. Dokumentu horietan egitate, egintza edo negozio juridiko berberak jasota daude. Artikulu honetan ezarritakoak ez du baztertuko Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzarako betebeharrak orokorra.

#### **19. artikulua.- Aitorpena aurkezteko errekerimendua**



1. Deklaratu ez diren zergapeko egitateen berri duenean udalak, 15. artikuluan adierazitako epeen barruan, deklarazio hori egiteko errekerimendua egingo die interesdunei. Horrek ez du eragotziko zerga arloan egindako arau-hausteengatik dagozkion zehapenak jasotzea.

2. Lehen aipatutako errekerimenduak egin ondoren, interesdunek ez badute kasuan kasuko aitortpena aurkezten, Udalak espedientea ofizios izapidetuko du, bere esku dauden datuekin, eta dagozkion likidazioa egingo du eta, hala badagokio, sarrera-epeak eta dagozkion errekurtsoen adierazpena adieraziko ditu. Horrek ez du eragotziko zerga arloan egindako arau-hausteengatik dagozkion zehapenak jasotzea.

#### **X. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza honek Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzen aurrera izango ditu ondorioak eta indarrean jarraituko du hura aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

#### **XI. ONARTZEA**

Ordenantza hau Udaltzaren onartu zuen behin behiko, 2023ko azaroaren 2an egindako ohiko Udaltzarrean, Jendaurrean jartzeko nahitaezko epea igaro eta erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez, erabakia behin betiko bihurtu da,

#### **I. ERANSKINA. KOEFIZIENTEAK**

Koefiziente aplikagarriak, balio-gehikuntza sortu den aldien arabera, honako hauek izango dira:

Koefizientea GFaren arabera eguneratu

<b>Sortu den aldia</b>	<b>Koefizientea</b>
Urtea bete	
aurretik	0,14
Urte 1	0,13
2 urte	0,15
3 urte	0,16
4 urte	0,17
5 urte	0,17
6 urte	0,16
7 urte	0,12
8 urte	0,10
9 urte	0,09
10 urte	0,08
11 urte	0,08
12 urte	0,08
13 urte	0,08
14 urte	0,10
15 urte	0,12
16 urte	0,16
17 urte	0,20



ZALDIBIAKO  
UDALA

18 urte	0,26
19 urte	0,36
20 urte edo gehiago	0,45

## II. ERANSKINA. KARGA TASAK

1. Zerga-oinarriari aplikatuko zaion karga-tasa %12,739 izango da.

### 6.ORDENANTZA

#### JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK

##### 1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasara ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek eta haren barruan geratzen dira jasota.

##### 2.artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

### II- ZERGAGAIA

##### 3. artikulua.-

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo haren probetxamendu berezi da zerga-gaia.

##### 4..artikulua.-

Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33.artikulan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera

##### 5. artikulua

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, probetxamenduaren onuradun direnek.



#### IV- SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

##### 6. artikulua.-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

#### V- OINARRI EZARGARRIA

##### 7. artikulua.-

Oinarri ezargarrria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

#### VI- KUOTA

##### 8. artikulua.-

- 1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.
- 2.- Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa alde aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

#### VII- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

##### 9. artikulua.-

- 1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zerga-gaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera





ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidetuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

- 2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.
- 3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

## VIII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

### 10. artikulua.-

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

## IX- TASEN KUDEAKETA

### 11. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

## X- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 2024ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

Eranskina:



## INSTALAZIO EZBERDINAK ERABILTZEAGATIK

<b>Pilotalekuko instalazioak erabiltzea</b>	<b>Kuota</b>
Erabiltzen den ordu bakoitzeko, argi guztiak piztuta	3,09
Dutxa zerbitzua talde bakoitza:	1,42
<b>Inpresorako tarifak</b>	
Inprimitutako orri bakoitza txuri beltzean	0,15
Inprimitutako orri bakoitza koloretan	0,25
<b>Fotokopiagailurako tarifak</b>	
Inprimitutako orri bakoitza txuri beltzean	0,15
Inprimitutako orri bakoitza koloretan	0,25
<b><u>MAHAIK., AULKIAK ETA KABALLETEAK</u></b>	
<b>Mahai alokairua Eguneko</b>	5,29€
<b>Mahai bat ez itzultzea</b>	100,52€
<b>Aulki alokairua eguneko</b>	1,07€
Karpa txikia 3mx3m	10,01€
Karpa txikia ez itzultzea	521,22€
<b>Ez itzultzea aulki bat</b>	26,46€
<b>Baso Berrerabilgarri bakoitza/eguneko</b>	0,21€
<b>Plater berrerabilgarri bakoitza/eguneko</b>	0,44€
<b>Baso Berrerabilgarriak ez itzultzeak bakoitza</b>	1,06€
<b>Plater berrerabilgarriak ez itzultzeak/bakoitza</b>	1,56€

### SALBUESPENAK:

Zaldibiako irabazi asmorik gabeko erakunde edota elkarteak (baxera, mahai eta aulkiak ez itzultzeko kasuetan izan ezik). Herritik kanpoko irabazi asmorik gabeko erakundeen edota elkarten eskaerak, kasuz kasu aztertu eta ebatziko ditu Alkateak.



<b>BIDE PUBLIKOKO ZONA BATEAN, GARAJE ETA LOKAL PARTIKULARRETARA SARTZEKO EDO ZAMALANAK EGITEKO, ERABILERA BEREZIA EDO APARKATZEKO DEBEKUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA onartuaren ondorioz pasabideen tarifa ezarri behar da:</b>	urteko x sarbidearen zabalera (ml.)
Erabilpen partikularreko lokaletara edo partzelatara sarbidea, 3 plaza baino gutxiagoko lokal edo partzelatan:	10,58€
3-5 plaza bitarteko lokal edo partzelatan:	25,40€
6-15 plaza bitarteko lokal edo partzelatan:	31,73€
16-25 plaza lokal edo partzelatan	40,21€
26-50 plaza lokal edo partzelatan	84,65€
51-100 plaza lokal edo partzelatan	105,79€

Espaloitik pasa ez badira %50aren hoberia izango dute.

Aparkamendu erreserba (IBIA). BAIMENA: 69,69€

Tarifa urte osorako ibia atearen zabaleraren metro lineala bakoitzeko: 41,81€

### LUR PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK

Kontenedoreak eguneko (frakzioa ere)..... 3,43€

#### **Babesak, aldamiok, hesiak**

Babesak azpitik pasa ezin denean: m<sup>2</sup> eguneko (frakzioa ere)..... 0,49€

Babesak azpitik pasa daitekeenean; m<sup>2</sup> eguneko (frakzioa ere)..... 0,26€

Hesiek m<sup>2</sup> eguneko (frakzioa ere)..... 0,84€

Hesi gabeko okupazioa m<sup>2</sup> eguneko (frakzioa ere)..... 1,42€

Hoberia: hesiak ohiko etxebizitza birgaitze edo eraberritze lanetarako badira: %60

#### **Baimendutako aulki eta mahaia**

Metro karratuko/hilean (azarotik apirilera)..... 0,43€

Metro karratuko/hilean (maiatzetik urrira)..... 0,84€

#### **Herri baratzak**

Partzela urteko..... 55,35€

Jaietako janari postuak..... 127,73€

Salbuespena: herriko eragile eta taldeen postuak, %100 hoberia.



## 7.ORDENANTZA

### ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA EKINTZA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA.

#### I. XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

##### 2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

#### II. ZERGAGAIA

##### 3. artikulua.-

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du zerga gaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

#### III. SUBJEKTU PASIBOA

##### 4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:



- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraipen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

#### 5. artikulua.-

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
- b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

#### 6. artikulua.-

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

### IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

#### 7. artikulua-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira, hain zuzen tasa bakoitzari dagokion eranskinean.

### V. OINARRI EZARGARRIA



#### 8. artikulua.-

Oinarri ezargarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

### VI. KUOTA

#### 9. artikulua-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

### VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

#### 10. artikulua-

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

### VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

#### 11. artikulua.-

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

### IX. TASEN KUDEAKETA

#### 12. artikulua.-

### X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 2024ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.



## HONDAKIN ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA

Tarifa mota	Euro/ urteko
Etxebizitza atez ate bilketa sistema	142,98
Etxebizitza etxola bidezko bilketa sistema	129,53
Komertzioak:	
Sortzaile txikiak: Hondakin-frakzioko 40l edo gutxiago sortzea	207,67
Sortzaile ertainak: Hondakinen-frakzioetako batean 80l edo gehiago sortzea	224,29
Sortzaile handiak: 2 hondakin frakzio edo gehiagotan 80l-tik gora sortzea	230,52
Tabernak	296,31
Hotelak eta komertzio handiak	603,01
Pabiloi hutsak (industrialak)	274,95

### Industriak

#### Tarifa finkoa:

0-5 langile artean, urtean.....	464,00€
5-10 langile artean, urtean.....	556,80€
10-20 langile artean, urtean.....	684,40€
20 langiletik gora, urtean.....	754,00€

#### Tarifa aldakorra: Errefusa kontenedoreen kopuruari dagokio.

1000l kontenedore bakoitzarengatik: 417,60€/urtean

360l kontenedore bakoitzarengatik: 139,20€/urtean.

### HOBARIAK aplikatu zaie tarifa hauei ONGI BIRZIKLATZEAGATIK

#### Tarifa mota:

- Etxebizitza atez ateko bilketa sistema
- Etxebizitza etxola bidezko bilketa sisteman.

#### Kudeaketa:

- Hobariak kalkulatzeko kontutan hartuko diren hondakin kuboak, organikoaren marroia eta errefusaren grisa izango dira soilik.
- Hobari hauek aplikagarriak izan daitezen beharrezkoa izango da Sasieta Mankomunitateak, Zaldibiako Udalari jakinaraztea hobaria jaso dezaketene etxebizitzetako kuboak zenbat aldiz jasoak izan diren fakturazio epearen baitan.
- Erabiltzailearen arduraren izango da dagokion egun eta orduan aurrez zehazturiko gunera kubo hauek ateratzea. Baita kuboak egoera onean izatea, kuboak bere baitan duen txipak behar bezala funtzionatzen duela bermatu du Sasietak, hala mantentzea dagokio hobaria jaso nahi



duenari. Behar bezala funtzionatuko ez balu Zaldibiako Udalak ordezko kubo bat emango lioke interesatuari.

- Hobariak aplikatzeko gehieneko bilketa datuak:
  - Gehieneko organiko bilketa 3 hilabetean 22 aldiz.
  - Gehieneko errefusa bilketa 3 hilabetean 10 aldiz.
- Hobariak aplikatzeko gutxieneko bilketa datuak:
  - Gutxienez organiko bilketa 3 hilabetean 8 aldiz.
  - Gutxienez errefusa bilketa 3 hilabetean 2 aldiz.

Zenbatekoa:

- ORGANIKOA
  - Jasoketak 8tik 12 jasoketa bitartean direnean %10 hobaria
  - Jasoketak 13tik 18 jasoketa bitartean direnean %7 hobaria
  - Jasoketak 19tik 22 jasoketa bitartean direnean %3 hobaria
- ERREFUSA
  - Jasoketak 2tik 4 jasoketa bitartean direnean %10 hobaria
  - Jasoketak 5tik 8 jasoketa bitartean direnean %7 hobaria
  - Jasoketak 9 eta 10 jasoketa direnean %3 hobaria
    - Oharra pardel/pixoihal eta egunero atera daitezkeenak ez dira kontakteta honetan kontutan hartuko.
- KONPOSTA HOBARIA: Materia organikoarekin ETXEAN KONPOSTA EGIN, AUZO KONPOSTA KOMUNITARIOAN ERABILTZAILE IZAN edo organikoa ANIMALIEN BAZKA bezala modu ziurtagarrian erabiltzen dutenei eta kubo bidezko organiko bilketarik egiten ez zaien etxebizitzek KONPOSTA HOBARIAren eskaera egin beharko dute udalean. Jasoketarik ez zaiela egiten bermatzean %10ko hobaria jasoko dute. Hobari hau jasotzeko izena eman eta kaleko kuboan organikoa jasoko balitzaie, zuzenean konpostari dagokion hobaria galdu eta hobari orokorra aplikatuko litzaielike.

## UR HORNIDURA

Tarifa mota	Euro/ hiru hilabeteko
<b>Kontsumoaren araberakoa</b>	
<b>Etxebizitzak</b>	
0-30 m3	0,63
30-50 m3	0,87
50 m3 gora	1,57
<b>Komertzio, taberna, Industria, garajeak,ea</b>	
0-30 m3	0,99





ZALDIBIAKO  
UDALA

30-50 m3	1,34
50 m3 gora	1,89
<b>Baserriak aktibidadearekin</b>	
0-100 m3	0,63
100-200 m3	0,87
200 m3 gora	1,57
<b>Finkoa kontadorearen diametroari dagokiona</b>	
13mm	3,14
15mm	3,46
20mm	3,68
...40mm	4,72
40mm baino handiagoa	5,14

#### URA HARTZEA

Tarifa mota	Euro
baimen bakoitzeko	135,56

#### Titularitate aldaketa

Tarifa mota	Euro
Aldaketa bakoitzeko	12,32

#### Azpiegiturak finantziatzeko planaren kuota

Tarifa mota	Euro/hiru hilabeteko
<b>Finkoa</b>	2,08
<b>Kontsumoaren araberakoa</b>	
0-30 m3	0,21
30-50 m3	0,23
50 m3 gora	0,24

#### ARAZKETA ZERBITZUA

Tarifa mota	Euro/hiru hilabeteko
<b>Finkoa</b>	15,63
<b>Kontsumoaren araberakoa</b>	
0-30 m3	0,26
30-50 m3	0,30
50 m3 gora	0,31

#### HILERRIKO UDAL ZERBITZUA

- Erabilpen publikoko hilobiak:



Kaxa hobiratzea eta 10 urteko kontzesioa nitxoan..... 149,65€  
Errautsak hobiratzea eta 10 urteko kontzesioa ..... 119,47€  
Deshobiratzeak (interesatuak eskatuta):

Errautsak..... 135,76€  
Nitxotik ..... 178,22€  
Lurpetik..... 275,59€

- Norbanakoen erabilpeneko hilobiak, kaxa hobiratzea: (\*)

Nitxoan..... 149,65€  
Panteoian..... 195,49€  
Lurpean..... 231,27€

Deshobiratzeak (interesatuak eskatuta):

Nitxotik ..... 178,32€  
Panteoitik ..... 228,07€  
Lurpetik..... 275,59€  
Hezurtegian (osarioan) sartzea eta kontzesioan 10 urterako (\*)..... 213,94€

(\*) Norbanakoen erabilpeneko hilobietan prezio hauek aplikatuko dira, betiere lanak udal brigadako langileek egiteko modukoak direnean. Kasu bereziren batean, kanpoko enpresaren bat ekarri behar bada udal langileek eta udal baliabideekin egiteko moduko lana ez delako, enpresak Udalari igorriko dion kostu osoa bere gain hartu beharko du zerbitzuaren eskatzaileak.

## ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

### 1. Artikulua. Tasa:

Erabiltzaileei aplikatuko zaien tasa orduko 19,38 € izango da.

### 2. Ekarpeneren koadroa:

Ahalmen ekonomikoa (araudiaren arabera) aztertu ondoren, erabiltzaileak zerbitzuaren tasan egin beharreko ekarpena honako ekarpen koadroaren arabera zehaztuko da:

<u>LAGS sarrerak</u>	<u>Ekarpena</u>
LAGSren ≤ % 70	2%
>% 71-72	5%
>% 73-78	10%
>% 79-94	15%
>% 95-110	25%



ZALDIBIAKO  
UDALA

>% 111-125	40%
>% 126-140	55%
>% 141-156	75%
>% 157-170	90%
>% 171-190	95%
LAGSren > % 190	100%

### 3. Ondarea zenbatzea

Familia unitatea kideen arabera, gehienez honako ondare muga hauek ezartzen dira. Muga hauek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, tasaren % 100 ordainduko dute.

<u>Kide kopurua</u>	<u>Gehieneko ondarea</u>
1	38.000€
2	70.000€
3 edo gehiago	85.000€

**IREKIERA BAIMENA: jarduera sailkatuentzat: 369,72€**

**HAUTAKETA PROZESUTAN parte hartzeagatiko : 15 € (langabeak salbuetsita)**



## **8. ORDENANTZA**

### **MUSIKA ESKOLA ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOA**

#### **4. Artikulua. Lege oinarria:**

Tokiko entitate honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43 eta 49 artikuluek jasotako eskumenak erabilita, prezio publikoa ezartzen du Musika eskolan musika irakasteko zerbitzua emateagatik.

#### **5. Artikulua. Helburua:**

Udal honek bere biztanleen bizi kalitatea etengabe hobetzeko interesa duenez, eta irakaskuntza eta jendarteratzea sustatzeko xedez, musikarekin lotutako hainbat disziplina ikasteko sarbidea errazte eta arautzea du helburu Zaldibiako udalerrian musika irakasteko zerbitzua emateko.

#### **6. Artikulua. Ordaintzera behartuak:**

Ordaintzera behartuak egongo dira musika irakasteko zerbitzua eskatuz beraren onuraz baliatzen direnak.

Eskatzaileek udalerrian erroldatuta egon behar dute, zaintza partekatua ardurapeko adin txikikoen kasuetan izan ezik, baldin eta arduradunaren bat udalerrian erroldatuta badago.

#### **7. Artikulua. Ordaindu beharra:**

Prezio publikoa ordaindu beharra musika irakasteko zerbitzua ematen hasi zenean sortutakoa da. Bestalde, zerbitzuaren eskaintza izena ematen den unetik hasten dela ulertzen da.

Prezioa nahitaez ordaindu beharrari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, zerbitzua edo jarduera ematen edo garatzen ez denean, egoki izango da dagokion zenbateko proportzionala itzultzea.

Zerbitzuaren antolamenduzko beharreetatik, ikasleek baja eman ahal izango dute soilik arrazoi justifikatuengatik (gaixotasun, istripu edo antzeko larritasunezko kausak direla-eta). Bajaren jakinarazpena egokitzen den hilabetearen 5a baino lehen komunikatuko da; gainerakoan, hilabete osoa kobratuko da.

Bi hilabete jarraian ez ordaintzeak zerbitzuan automatikoki baja ematea ekarriko du. Ordaindu gabeko erreziboren bat duten ikasleei ez zaie baimenduko beste jardueretan edo zerbitzuetan izena ematea.



## 8. Artikulua. Hobariak:

Elkarbizitza unitate bereko hirugarren kideari eta hurrengoei prezioaren %50a aplikatuko zaie.

Taldea osatzeko garaian ikasle kopuruaren ratioa dela-eta Itsasondo, Legorreta edo Idiazabalera joan beharra izango duten ikasleei edo interesatuei prezioaren %90a aplikatuko zaie.

## 9. Artikulua. Kudeaketa eta ordaintzeko modua.

- a) Ikastaroak 10 hilabeteko iraupena izango du, irailetik hasi eta ekainera bitartekoa. Izena emateko eskaria eta ikastaro bakoitzeko matrikularen ordainketa zenbatekoaren egiaztagiria (aldez aurretik gordailuan) Zaldibiako Udalean ekainaren 1a baino lehen beharko dira.
- b) Musika eskolan izen eman duten ikasle guztiak kuota bakar bat ordainduko dute "matrikula" kontzeptuan eta "hileroko kuota" duten ikasle guztiak hileroko hamar kuota ordainduko dituzte irailtik ekainera bitartean (bi hilabeteak barne). Hileroko kuotak banku helbideratze bidez ordainduko dira. Zerbitzuaren kuota hilabete bakoitzean, amaieran, ordaindu beharko dira. Eskolak beste edozein material gehigarriren bat ematen badu, beti kobratuko da banku helbideratze bidez.
- c) Zerbitzuaren onuradun gisa izen ematea berritzeko automatikoki egingo da, non eta ez den baja emateko asmoaren jakinarazpena komunikatzen, betiere ikasturtea hasi aurreko ekainaren 1a baino lehen, eta kuota kobratu egingo da artikulua honetan adierazten den moduan.

## 10. Artikulua. Araua haustek eta zehapenak edo zigorrak

Ondoz ondoko bi kuota ordaindu gabe uztea zerbitzuaren baja emateko arrazoia izango da, sortutako eta kobratu gabeko kopuruak premiamendu bidez kobratzeko eragozpenik gabe.

Gainera, Zergen Foru Arau Orokorraren eta hori osatu eta garatzen duen xedapenetan jasotako arau hausteen eta zehapenen araubidea aplikatu da.

## 11. Artikulua. Tarifak:

Matrikula.....	47,29€
Musika tailerra 1º, 2º hilean.....	38,19€
Hizkuntza musikala, hastapena, musika tailerra 3º hilean.....	57,35€
Musika tresna, kantu, harmonia, hilean.....	57,35€
Kantua piano laguntzarekin, hilean.....	71,74€



ZALDIBIAKO  
UDALA

Zaldibiako Udalean, 2023ko azaroaren 2an egindako ohiko osoko udalbatzarrean onartu ziren ordenantza fiskal hauek.